

## Agintariak eta Langileria

### Oposaketak eta Lehiaketak

#### OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

1312

608/2010 EBAZPENA, otsailaren 4koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Ezkerraldea-Enkarterri eskualdeko Erizaintzako zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdi publikoa egiten duena.

Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko Erizaintzako zuzendariaren lanpostua hutsik dagoenez, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Nagusi honek. Hona hemen

#### OINARRIAK

**Lehenengoa.**– Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko Erizaintzako zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdian –ebazpen honen bitartez egiten da deia–, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioen erakundeei atxikitako langile finkoek parte har dezakete (funtzionarioek, estatupekoek nahiz lan-kontratuko langile finkoek), bai eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta horko erakunde autonomoetako funtzionarioek eta beste langile batzuek ere. Hauek dira bete beharko dituzten baldintzak:

1.– B1 taldeko Erizaintzako diplomatura titulazioa eduki beharko dute.

2.– Administrazio- eta kudeaketa-lanetan esperientzia izan beharko dute.

**Bigarrena.**– Interesdunek Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Erakunde Zentraleko Giza Baliabideetako Zuzendaritzan aurkeztuko dituzte eskabideak, 10 egun baliaduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako eran ere aurkez daitezke eskabideak.

**Hirugarrena.**– Deialdi honetan parte hartu nahi duten izangaiek, eskabidearekin batera, honako hauek adierazten dituen curriculum vitae aurkeztu beharko dute:

## Autoridades y Personal

### Oposiciones y Concursos

#### DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

1312

RESOLUCIÓN 608/2010, de 4 de febrero, del Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión del puesto de trabajo de Director/a de Enfermería de la Comarca Ezkerraldea-Enkarterri.

Encontrándose vacante el puesto de trabajo de Director/a de Enfermería de la Comarca Ezkerraldea-Enkarterri, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre, esta Dirección General acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de libre designación, con arreglo a las siguientes

#### BASES

**Primera.**– El puesto de trabajo Director/a de Enfermería de la Comarca Ezkerraldea-Enkarterri, que se convoca mediante la presente Resolución, podrá ser solicitado por el personal fijo (funcionario, estatutario o laboral) adscrito a las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, así como por el personal Funcionario de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos, y por aquel otro personal siempre que reúna los siguientes requisitos:

1.– Estar en posesión de Titulación de Diplomado/a Sanitario/a del Grupo B1.

2.– Tener experiencia Administrativa y de Gestión.

**Segunda.**– Los interesados dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Recursos Humanos de la Organización Central de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, dentro del plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de su publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco. También podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Tercera.**– Los aspirantes que deseen tomar parte en la presente convocatoria deberán acompañar a su solicitud un Curriculum Vitae en el que harán constar:

- Titulu akademikoak.
- Betetako lanpostuak.
- Lanbidean eta kudeaketa sanitarioan daukaten eskarmentua.

– Ikasketak, ikastaroak, ponentziak, argitalpenak, hizkuntzak eta azaltzeko moduko beste edozein me-rezimendu.

Eskatzen diren betekizunen eta aurkeztutako me-rezimenduen frogagiriak aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitzat jotako beste edozein agiri ere aurkez dezakete.

**Laugarrena.**– Deialdi hau Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez ebatziko da. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

**Bosgarrena.**– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteke epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 4a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JULIÁN PÉREZ GIL.

- Títulos Académicos.
- Puestos de trabajo desempeñados.
- Experiencia profesional y de gestión sanitaria.

– Estudios, cursos, ponencias, publicaciones conocimientos de idiomas y cuantos otros méritos estimen oportunos manifestar.

A la citada solicitud deberán los aspirantes adjuntar además la documentación justificativa de los requisitos exigidos y de los méritos alegados. Así mismo, podrán acompañar cuantas publicaciones, informes o cualesquiera otros documentos estimen oportunos.

**Cuarta.**– La resolución de la presente convocatoria se llevará a cabo mediante Resolución del Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Quinta.**– Contra la presente Resolución podrá interponerse Recurso de alzada, ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de febrero de 2010.

El Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud,  
JULIÁN PÉREZ GIL.